

Baxili Madina Anduaga

*Oñati, Gipuzkoa
(1914-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Uribarri auzoko Latostegi ("Datustegi") baserrian jaio zen 1914an eta bertan bizi izan da beti. Zortzi anai-arrebatan gazteena zen, eta bi urte besterik ez zituen aita hil zitzairenean. 14 urtera arte Uribarri auzoan bertan ibili zen eskolan eta geroago beste bi urte egin zituen kalean mojekin. Senarra ere oñatiarra zuen, Lezesarri auzoko Goienetxe baserrikoa.

Zintak

ONA-046

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-06
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-047

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-06
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-115

- **Proiektua:** Gerra Gogoratu Guran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-21
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. 1914an jaioa; gurasoen jatorria

- **Erref:** ONA-046/002
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1914ko uztailaren 11n jaio zen, Arantzazuko Ama Birjina agertu zen egunean. Beti bizi izan da Latostegi baserrian, baina gerra denboran urtebete egin zuen Madrilén neskame Pidal familiaren etxean. Aita bertakoa zuen, baina berak bi urte zituela hil zen. Ama 19 urterekin ezkondu zen Lastotegira.</p>

Transkripzioa

- Ze urtetan jaio zifan?
- Milla... milla bederatzirehun ta hamalauan.
- Eta ze egunetan?
- Garagarrillan hamaikan, Arantzazuko Ama Birjina agertu zan fetxa berian.
- A bai, e?
- "Once de julio", Corpus Eguna zan, Corpus Eguna, eta gero, ba, horregatik hurrengo egunian bataiatu nindduen.
- Eta hemen bertan jaio zifan?
- Bertan. Hemendik kanpo urte bete in dot bakarrik. Gerrako denporan hau

etxeau bete zan jentiakin eta neuk be aprobetxau neben ba urtebete, kanpuan zer pasaitten zan ikustera. Madrillen egoten zienak eta udan hemen egoten zienak, "Señoritas de Pidal", oso famosua zan ministro baten alabak.

- Señoritas de... ?

- Pidal.

- Pidalez?

- Pidal, Pidal. Euren alabia izan banitza, haik solterak zian, baiño gehixao gura nostein. Zeatik? Ortuan lana itten bakarra izan nitzan, ortua eukein haundixa eta handik berdura ta bihar dan dana ekarten nosten etxera. Sukaldaritzan be in neben, eta sekula kejarik ez neben euki, eta nik uste dot euki, euki in banittuan failluak be, tapau in nostaila gaiñera, iñor ez da perfektua ta.

- Eta gurasuak, bertakuak zian?

- Gurasuak, nik bi urte ez dakotela nere aitta hil zan, nik ha ez neben ezagutu, eta txarrena antzerki bat be ez zala geldittu bereik, horrek emun nostan min, horrek. Horretxek emun nostan min. Beti amari pegauta letxe, ama onduan, saiatu nintzan.

- Eta bertakua zan? Oñatiarra?

- Hemen jaixua bera. Fan zan, hemen Madinabeitia izeneko mediko bat euen, baiña itten eben lana Bilbon, ta fan zan, estomaguatik fan zan hara, baiña honutz datorrela emun otsan, perforau in xakon estomagua, aizua, eta lagun batzuen etxian sartu zan eta hurrengo egunian bertan hil zan. Nik bi urte ez neukala hil zan aitta. Eta gero nere anaiak eta asko lagundu nostain. Hola ifiñi bihar dittozu /bittozu/ eskuak eta hala ifiñi bihar dittozu / bittozu/ ta bestia in bihar dozu /biozu/ eta holaxe zu. Baiña oso argixa izan nintzan gauzak ikasten, zazpi aldiz esan biharrik neri sekula ez dau euki iñork, behin esanda ondo hartzen dittut gauzak.

- Eta ama bertakua zan be bai?

- Ama kanpotik etorri zan, Zulatzatik. Hemeretzi urtekin etorri zan hona nere ama.

- Ze etorri zan, neskame edo?

- Ez, ezkondu in zan hemeretzi urtekin.

- A, hemeretzi urtekin ezkondu zan.

- Bai, garai hartan nik uste dot gazte samar ezkonketan zala jentia.

2. Apaizari zuka hurbiltasunagatik

- **Erref:** ONA-046/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Ikasketak dituen jendeari "de usted" hitz egin behar zaiola dio. Hala ere, berak apaiza oso hurbilekoa izan omen du beti (bera eliza garbitzen ibiltzen zelako) eta ez du izan apaizari berorika hitz egiteko ohiturarik.</p>

Transkripzioa

- Nik "usted" errezago trataitten dot neuk be, holaxe eskolatik edo nik eztakit zer ta, baiña, enkanbio nik konfiantza dakoten abaria trataitten dot

"de tu", neure hurrekua izan ezker, ha be "de tu". Neuk famelixa moduan danak "de tu", baiña hortik gaiñera, halabe karrera bat dakon gizona betik "usted" tratatiteko legia da, karrera bat dakona "usted", legez "usted" tratau bihar da. Bai, gaur eztakit hori asko errespetaitten dan, baiña ez euen geixki errespetaittia.

- Zeuek apaizari ta "berori" itten zetsazuen?

- Bueno, nik apaiza oso hurrian euki dot hau Uribarrira etorten dan don Sabino be, oso hurrian eta hainbeste hurrian elizako lanetan, garbiketan, betik garbiketan, uste dot San Andres azkeningo neuk garbittu nebela, hala, eskillaria ifiñi ta dana garbittu, goittik-behera. Baiña oso... ni betik apaizen onduan. Leheningo etorri zien hona...

3. Zazpi apaiz Oñatin

- **Erref:** ONA-046/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Herriko apaizak: Don Zabaleta, Don Leonardo, Don Miguel... Zazpi apaiz omen zeuden orduan Oñatin. Hileten inguruko kontuak. Istripu handi bat egon zen trenbidean eta jende asko bildu omen zen orduko hiletan.

Transkripzioa

- Leheningo etorri ziren hona... Zabaleta, don Leonardo Zabaleta, hemen etxia eukein gaiñera horreik, eta bestia zan don Dionixio, hori mutillen kongregaziñokua zan parte, eta gero don Miel, eta... Don Miel grazia haundixa itten eben sermoia itten, egun baten esan oskun: "Ni gaur hona etorri naiz, eta eztakit atzera fango naizen". Berak holaxe itten eben, holaxe. Hari mehe-mehe-mehe baten txintxilizka gaozela han danok. Eta nere artian: "Ez al da ba etengo momentuan behintzet, dakozen pixuakin" pentsaitten neben.

- Zer zan, haundikoten bat?

- Holakotxia, trena lakotxia. Esaten euen gaixorik egon zala eta gero orduan ofrezu ebela, osaketan bazan, apaiz fateko, baiña kosta in xakon puxka bat itxuria hor, hor, tramo hortan, baiña aurrenengo puntan, klaro, Oñatin herrixan 7 abare zerak, elizbarrukuak, 7, eta gero entierro bat bazan be, goikua bazan..., gora urteten euen, Itturritxoraiño; Kalebarrikua bazan Kalebarriraiño, illariak urteten euen. Baiña illararik haundixena egon zan hor, egon zan izugarriko zer bat, akzidente bat pasonibelien, Oñatin, oin dala 50 urte inguru.

4. Oñatin gertatutako istripu baten inguruko kontuak

- **Erref:** ONA-046/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Izugarritzko istripua gertatu zen Oñatin, trenak kotxe bat harrapatu zuenean. Orduko hiletetan jende asko bildu zen. Martin Zulueta ren familiakoak ziren istripuan hildakoak.

Transkripzioa

- Halakorik, Oñatin halako entierrorik sekula ezta egon. Nik tarjetia dakot, Kirriñenian saltzen egon zien ta erosi neben bat, dana dago baltz.
- Baiña ze akzidente egon zan?
- Akzidentia pasonibelian euki euen horreik akzidentia.
- Kotxia harrapo trenak?
- Bai, pasonibelian eztakit kotxia, trena edo zek harrapo eben baiña trena izango zan pasonibelien, zabalik egon, eta horreik fan zien Gabonetako jostailluak erostera Bilbora, umiendako jostailluak erostera, eta bera etorren, txikixena 5 hillabetekua edo, hari[...] etorren, baiña begira ze, ze atsekabia izan zan hori, gogorra izan zan, gogorra.
- Zeintzuk zien, zela zan izena, hor hil zianen izena?
- Martin Zulueta. Hori zan amerikanua, Amerikan egoten zan asko edo holakoren bat zan. Martin Zulueta hori famosua zan.

5. Istripuak; senarraren moto-istripua

- **Erref:** ONA-046/010
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Oñatin gertatu zen istripu handi batean hil zirenen inguruko azalpenak. Beste istripu batzuk, bere senarraren moto-istripua barne.</p>

Transkripzioa

- Eta hori, Martin Zulueta esan dozuna, hori esan dozu akzidentian hil zan ezta, bera?
- Bere alabia hil zan hor, horko andria hil zan, gaztia.
- Martin horrena, alabia hil zan akzidente horretan?
- Akzidente horretan hil zan. Horreik fan ziran Gabonetako regaluok ekartera umiai Bilbora, asko ekarri be in biharko zittuen eta euren kotxiakin fan zien, txoferrakin, baiña danak galdu zien han, pasonibelian, txoferra ta, eurak bi ahizpa eta aitta gaiñera.
- Danak hil zian orduan.
- Eta Martin hori bertan euen?
- Martin ez. Martin,... etxe hortakuak bazian horreik, hori aurrerago, hori ez dakit, hori nik persona hori ez neben hainbeste ezaguturik izango, baiña

horrek eztarrikuak kentzen zittuen semiak, glandulak kentzen zittuan, eta oso lan haundixa eukitten eben hortan be, baiña gaur hori itteko be, hara, beste edozeinek asmauta dakoi, hor holako batzuk ein eta kentzen dittuela, bai.

- Eta akzidente hori noiz izan zan, gutxi gorabehera?

- Berrogeta hamar bat urte badia hori zala. Ta nik fotografia dakot horrein entiaruan lau kaja egozen, parrokixien atien lau kaja, dagoz, txoferrena ta beste hirurena. Gogorra izan zan e? Eta handik eta estaziñora, kanposanto aldera, ha, estaziño alderakua eta, ha dana, dana, dana, jentia dago. Arkitektua Kalezaharrian bizi zan, eta gero Kalezaharrian gora etorri zien hor abare pillia eta handik ekarri zittuein illaria, baiña gogorra izan zan, benetan gogorra. Gero egon dia akzidentiak, gaztiak be euki gero hor, San Prudentzion be bai ta, beste baten Domu Santu bezperia, eta etozen Mondrauetik eta gura euen eguna zabaldu orduko etxeraketia, eta belozidade haundixuaguaz hartu euen eta jo bazterra eta han geratu zien haik be. Haik ez dakit zenbat zien, hantxe geratu zien haik be. Bai, holaxe gutxien uste dan lekuan, ba, tokaitten dia horreik. Eta horreiña barik nere gizonak euki eben akzidentia. Esto, beetorren, Legazpiko alkatiakin egotera fan zan eta beetorren bueltan ta gorra, bere farol zahar batekin xoian goittik-behera, gorra, eta gorrak ez otsan aldeteko zerik eta berak emun otsan ezkiñiari. Motorrian ez gitzan aguro ibiltten, behetik-gora hankia lurrian ipintteko moduan faten giñan. Ni zazpi urtian ibilli nitzan motorrian, baiña hankia lurrian ifintteko moduan betik, hemendik Arantzazura eta, umiak be danak hartuta faten giñan, kamiñuan be ez euan gaur lako beste kotxe ta traste, ez euen, libertade gehixau euen, eta hola. Baiña ni gero, gizon hori jota, kamiño ezkiñan geratu zan nere gizona, hantxe belarritatik odola daixola, kamiño ezkiñan, eta hementxe Urtiagaingo mutil bat neskiari lagunketara goiko palazioko kriadiari lagunketara etorrela neskia [...], klaro, koiñatuaren anaia, esto, ha neskia itxi eta fan zan tasisa hartzera, itxi eben Txopekuan, eta gero neri abixau nostan, eta hurringo egunian fan nintzan Txopekora, hemezortzi egun Txopekuan pasau gittuan, "entre la vida y la muerte", hola, eta urte hartan ama hildda neukan eta hiru seme-alaba geukan, eta urtia justo-justo ama hildda, anae bat hil xatan berrogei urtekua derrepente, berrogei urteko anaia derrepente hil xatan.

- Zure gizon horrek ze edade eukan orduan?

- Orduan ba, han egon zan Txopekuan, buruan eukan golpia eta, Santa Agedako medikua...

- Ze edade eukan, zenbat urte?

- Nere gizonak? Ba neu baiño bi urte gaztiaua zan, eta eukan orduan, hogeta hamalau urte edo eukan.

- Gazte ondiok.

- Bai, hogeta hamalau urte.

- Baiña aurrera urten eben.

- Bai, aurrera urten, ta ni begirik batu barik egon nintzan egun horreik danetan, ez dakit zela soportau neben. Begirik batu barik, anaiak etorri ziren ta, Juan eta Jose anaiak be etorten ziren famelixakuak, baiña ikusi barik atzera faten ziren, oso gaixki, eta Santa Agedako medikua bertara ekarri eta hemenguakin gero, bixkarretik atara otsain likidua ta hor ibilli zian, baiña gero bastante aguro gero atzera jarri zan ondo. Bueltan hasi zanian, harek rekuperaziñua beti holaxe itten eben, aguro.

6. Erizain eta etxekoandre

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Senarra osatu bitartean egin behar izan zituen lanak. Labesua eta "karapaixua".

Transkripzioa

- Eta ondiok ume gehixao euki zittuein.
- Bai, beste hiru, sei, sei dakuu guk.
- Klaro, esan dozu hiru zeukatzula...
- Bai, akzidentia euki ebenian hiru geukan. Eta bueno, tristia izan zan ha, benetan tristia izan zan neretako, etxian be atendiuhihar, etxian ba neska bat oso ona geukan, baiña, kanpokua baiña oso konfiantza haundikua, ta bai, artian be, ba, ganau pillia be, dozena bat ganau eukitten gittuan ba, ta haik eta gero esnia jaitzi ta lanak egoten zien. Ni esnia jaizten ibiltten nintzan.
- Eta zu bertan jaixua bazara, gizona nundik etorri zan hona?
- Goixenetxekua.
- A, Goixenetxekua.
- Bai, hemendik behera goiazela, hor Gastiasoron hor...
- Bai, badakit nun dauen etxia. Rafael itsuaren parientia?
- Bai, haren tio, bai, bai, eta oso majua gaiñera be, bueno. Gizon bat zan! Nik esaten nebena beti ondo euen harendako, nik ez dakit zer pasaitten zan, nik esan hau hola in leike, bestia hola, ta dana ondo! Eta itten nittuan tremendako tartak domeketan ta itten nittuan ta, ogixak betik esaten nostan: "Bizkotxua baiño gozuauak ein dittozu". Ogixa itten neben danian esaten nostan. Ogi onak in be itten gittuan, baiña "Bizkotxuak lako gozuak in dittozu".
- Bape labesurik badakozue oin, ala ez?
- Eta gero, ba, berak eraten baeben baso bat ardau kalte itten otsan! Oin ez dou itten labesurik, baiña orduan ba aste daneko ogixa itten zan, eta lau egunian edo, pittin bat sikatuko zan, baiña igual-igual egoten zan. Ondo tapauta oso manta garbi-garbixakin ondo tapauta ta labesua itten oso garbi ibilli bihar da, oso txukun.
- Baiña labesua ondiok badakotzue edo ya hori kendu in zeuen?
- Ez, kenduta dakogu, eta dakogu tremendako despensia bertan.
- Haren lekuan.
- Bai. Eta ba hola, baiña nik labesua? Gaur be ingo neke nik labesua, gaur be, pozik gaiñera. Hor be ingo nittuke bi ogi holakotxiak luziak, labian, ta bixakin e, aste honetan gogua dakot, karapaixua edo zerbait itteko gogua baxakuat ba nik, karapaixua hola, txorixakin in, eta hori oso ederra izaten da, txorixuakin, hemen mikuakin, txorixak dittuala, bueno! Oso politak.

7. Etxean gizonik ez

- **Erref:** ONA-046/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan, aita hil ostean, aita jaunaren oso lagun egin zen, baina hau ere laster hil zen eta handik gutxira bere anaia soldadutzara joan zen.

Transkripzioa

- Umetan, esan dozu, aita hil zala zuk bi urte zekazuzenian. Ezan bizimodua erreza izango gero, ezta?
- Ez ba, aittajuna bizi zan.
- Aittajuna bizi zan?
- Bai, aittajunak esaten ebela, hainbeste ezagutu zittuela hemen, baiña danetatik onena neu nintzala. Ni trankilla betik izan naiz, baiña hola pentsau ingo eben momentu hartan aittajunak, [...]
- Eta zu zer ziñan, alabarik zaharrena?
- Gaztiena.
- Gaztiena gaiñera? Eta gaztiena geratu etxian?
- Gaztiena neu nitzan danetan, zortzittik gaztiena. Eta aitta barik geratu nintzan bi urtekin. Bai, ama 19 urtekin etorri zan hona, nire ama, oso-oso fiña, langillia, bueno, zan langille aparta zan, aparta, aparta. Hemen kanpo asko euen ta nehiko lan ebali eben berak.
- Dozena bat ganau bazeukein, horrek lan asko emuten dau.
- Lan asko, hemen etxe-buruan dakuu terreno sail haundixa, zelai dago dana, baiña bi urteko ogixa hartzeko baiño gehixao.
- Eta, aitta ez zekazunez, [...].
- Gero aittajunakin ni beti aittajunaren onduan ibiltten nintzan gero aitta hil xatenian ta aittajunari baba-baltza gustaitten xakon asko, baba-baltza jaten eben berak, aparte jaten eben mahaitxo baten aittajunak, baiña ni haren mahaixan betik, aittajunen mahaixan baba-baltza neri be gustau, gustau itten xaten baba-baltza neri, aittajunakin hori jaten neben ta gero ha aittajuna pulmonixa batek harrapo dost eta ez aitta eta ez aittajuna geratu nitzan.

8. Egunero eskolara; gau-eskolak

- **Erref:** ONA-046/016
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolako egutegi eta ordutegiak; domeketan ere eskolara joaten ziren. Garai haietan ere izaten ziren gau-eskolak.</p>

Transkripzioa

- Eta liburuak eta euskeraz eukitzen zenduezen? Edo erderaz?
- Erderaz liburu asko eukitten geben erderaz, guri esaten oskuen erdera falta gebela guk.
- Baiña euskerazko libururik bazeukatzuein?
- Euskerazko neri harek bat erregalau in nostan ederra, abare batek bere

amari eitten otsan kartak dia. Jerusalem aldian ibilli zan abare hori, ta euskeraz itten otsan kartak bere amari egunero-egunero, ta hor dakot goixan hori. Liburu hori herrixan bat edo bi dagoz bakarrik, e?

- Eta baiña eskolan euskerazko libururik, eskolako libururik eukitten zeuein?
- Bai, euko gittuan guk euskerazko liburuak, bai.
- Bazan bat, "Xabiertxo" edo...
- Bueno, hori gerotxuagokua zan hori, "Xabiertxo" eta horreik, horreik "como dibujos animados" ta gauza asko dagoz hor, baiña guk horixe, eskolia ikasten geben mas bien zera, kontuetan.
- Kontuak.
- Hori asko, problemak. Ba ibiltten gittuan "regla de tres", "regla de interés", "regla de interés compuesto", ta nik eztatik noraiño allau giñan, orduko, holako, holako zerak... Eta baiña sumarra, sumarra irakusten beste bat euki geben izugarrixa, holakotxe sumarra bai eta "ta-ta-ta-ta" ez euen harrapoko ebenik, "maixu luzia" esaten gotsan, hola etorri zan Araoztik, eta haren zera, baiña rapidezia kontuak etaraten, izugarrixa zan.
- Eta ze joaten ziñazien, astelehenetik eguaikotzera...
- Bai, baiña gero horrek maixu horrek, lehen esan doten horrek, domekan be lan asko eukan. Leheningo mezia, mezia erantzun, hango bazter danak, eliza dana ondo ifiñi, altaria eta zerak eta, kanpada danak jo ta, haik errekojiu ta; gero arratsaldian atzera errosarixua eta eskolia eta domeketako eskolia.
- Domeketan be eskolara faten ziñain?
- Bai ba, esan dot ba lehen be hori, domeketan be eskolia. Errosarixua, galbarixua eta...
- Horreik zien domeketako eskolia?
- Bai, eta gero ondorian domeketako eskolia, don Felipek.
- Eta bestela astian zihar goiz ta atsalde joaten ziñazien?
- Bai, bai, bai, betik goiz ta atsalde, betik. Goizian 9ttan eta gero ba 12xak arte. Arratsaldian atzera ordu 2 ta erdixak edo hor sartuko giñan, eta arratsaldeko 4 ta erdixak. Bai, segun udia bazan negua bazan, hor be kanbixaitten zan pittin bat. Eta gero egoten zan zera, gau-eskolia mutillendako. Mutil nagusixak eukitten euen illunkaratan eskolia.
- Etxeko lanak akabo eta eskolara?
- Bai, gau-eskolia eukitten euen, bai, eta hori be inportantia zan, eta mutillak be hantxe ba barreztaitten zittuen euren eskolak, lehenau ikasittakuak eta ba...

9. Kalera eskolara

- **Erref:** ONA-046/017
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Kalean ibili zen eskolan bi urtean, Ospitalean. Bere anaia, berriz, maristetan. Marista, Agustino eta Frantziskotarren inguruko kontuak.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, gero ni be kalera fan nintzan eskolara, beste bi urte kalia in

nittuan, hamabost ta hamalau urte hemen, legia zan hemen ibili bihar zan hamalau urte, eta hori kunpliu nebenian, kalia ibili nintzan beste bi urtian, Residentziako mojak, Sor Pia, Sor Grazia, Sor Epifania.

- Eta nun zera, Ospitalian, eskolia Ospitalian euenian?

- Bai.

- Neu be ibillitta nago han.

- Han, han ibilli nintzan ni han, Ospitalian.

- Ni umetan, lau urtekin.

- A, zu behian parbuluetan ibilliko zifan ezta, igual?

- Bai baiña, klaro, ni ibilli nintzan han oin dala 46 urte; zu, berriz, oin dala 80 urte.

- Ene! Ni antxiñako kontua! Mojok be oso poltxikan euki gittuan, gu betik ogixa edo tremesa edo eruan be itten gosten, gura euena, intxaurra edo gura dana. Eta berriz eskolan ondo preparauta geontzen, hango eskolia ez zan sekula be...

- Eta zuek anae-arreba danok faten zifain eskolara?

- Bueno, danok, ba, ni baiño zaharraguak ya... Beste anae bat neukan oso listua eskolan, oso listua, maixuak esan otsan berak dakixen danak erakutsiko otsala hari esan otsan. Ameriketara fan zanari be igual esan otsan eta bestiari be bai. Eta orduan ha be gero partikular maristakin ta, hola ibilli zien beste batzuk orduan; lehen Maristak zian, nire semia Maristakin ibilli zan urtietan, gero Maristan eskolia ezkutau in zan hor, ezta?

- Ni neu ez naiz ibilli Maristakin.

- "Calle Amara" edo zela da hori? "Tamara" edo, Maristen nagusixen izena dako horrek kaliorrek, Agustiñotarako kale horrek, bai. Hori, liburu bat ekarri nontan Jabierrek, geixoren bat zainketan nauela, ta ez zeukan beste libururik? Ta zan Oñatiko Agustiñuena, hasi nintzan irakurten eta gustau xaten. Irakurri neben dana. Hemen pasau zien gauzak! Ta klaro, oñatiarrak zien gehixenok, zerok, Maristok, gero Agustiñuak be, hemen Agustiñotan sartu ez zan mutikorik ixa ez euen, danak leheningo Agustiñotan ifiñi eta gero, ba, eskolak ikasten zittuein behintzet onak, eta Arantzazun igual, Arantzazun mutikuak egoten zien "hasta 300 e, 300", eta hareiri danairi emun in bihar xate, zu. Eta Arantzazuko frailliak hemen Otadui etxe baten be etxia erositta euki euein eta gero behixak edo zerbait, esnia behintzet eukitteko umiendako eta zera, ezta?

10. Joskin ikasten etxean

- **Erref:** ONA-046/020
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Joskin ikasten hasi zeneko kontuak. Lihogintzako (liñugintzako) kontuak.

Transkripzioa

- Orduan, eskolan gauza asko ikasi zendun zuk? Argixa zifan.

- Nik gauza asko eta gehixago ikasteko goguakin egoten nintzan betik, eskolan oso... Eta gero josten, amak neri —berak goruetan itten eben, baiña— amak neri bastidoria erosi nontan, bordaitten itteko. Ez nontan erosi goroik, nik goruetan ez neben ikasi, baiña amak karretako harixa, [...]

harixa itten eben. Etxian liñua batzen geben lehenao, ta haren pasadizua be luzia zan, ene! Hango harikaria eta hango eztakit nor ta badakit... zenbat traste!

- Etxian ereitten zenduen liñua?

- Bai, bai, hemen ereitten geben linua.

- Zelakua izaten zan liñua?

- Ene! Liñua? Ba gero hola gauza bateaz tranga, hor, bakaillaua ebateko ibiltten daue ba dendatan? Antzerako gauza bat zan, haundixaua, ba hola horrekin itten zebe bigundu. Ta gero bestia [arrastillua], harekin azala kendu. Nik goguan dakot horrek eukan prozesu bat, billurgarria, baiña gure amak, bueno, hanka bat itten xako, piezia, piezak dako amak hola einddakuak piezak; eta bat dako latzaua, hori [karraskia] esaten xako hori [gaiñekua]. Bueno, baiña hori be akaso mahai gaiñetan ipintteko ta... Bihar bada aprezio ona euko leke, eta gero bestiak, ba leunaguak, eta gero ba ezkondu bihar dian danairi dozenaerdiña halako izara, amak berak jositta ezkiña guztiok eta bueno, bueno.

- Ehuna-eta bertan itten zeuein?

- Eta gero, klaro, orduan be baeozen telak erosteko, baiña arriuak eta be gero gaiñera orduan burdixan ta eruanda, danen aurrekaldian atara bihar ta, eztakitzu? Honenbeste izara ta hainbeste ez dakit zer ta hainbeste badakit nor ta horrek eruaten eben, ba, gauzak ondo indda eruatia, momentu hartan. Nahiz ta gero izan ez hain inportantia, horrekin lo ittia, nik eztot behintzet holakuakin lo itten, ez, ez, ez...

- Nik behin probau dot, eta...

- Zenbat eta kaskalauan gurao dot, zeatik mantatxo bat be badakot bihar dotenian ifintteko, ezta? Orduan, ba, ohia puxkatxo bat berotu eta gero mantia kentzen xatzu eta sartzen naiz ogera eta ederki asko egoten naiz. Ederki asko.

- Horreik ze zian, lakarrak ezta? Gogorrak.

- Gogorrak horreik, bai, baiña bestiak amak indda dakonak, horreik bigunak dia, horreik dia bigunak, eta asko repartiu eben amak berak, hola inddako izara horreik, asko, zera, baikotzari emuten eben dozenaerdi halako, gero dozenaerdixen lekuan ba bost haundixauak, baiña allau ezindda zeri ez, ondo manejaiteko, haundixauak itten ittuan, eta halaxe ba. Ze ingo dozu, ba?

- Ta liñuan loria ze izaten zan, urdiña edo?

- Bueno, liñua da hola, haritxo baten modukua, berdia izatia, hola behetik dator, haritxo baten modukua da, eta gero hori, ba, [arrastilluak] hori azala kentzen xao horri. Eta gero beraketan euki eztakit nun, pozuren baten beraketan, nere anaiak eruaten euen. Horrek dakon lana iñork ez leke hartuko gaur ezta, ezta... ezeatik be ez!

- Gaur dana makiñiakin ta...

- Eta gero, gaiñera, orduan dana atxurrakin asko lan gehixao itten zan, eta gu pioneruak giñan zerbait urteten ebenian barrixa, segidan erosten euen, segidan erosten geben sororako onena, ezta? Baiña artian be, ba, artian be lana in bihar.

11. Oporrik ez

- **Erref:** ONA-046/021
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Oporretan ere lanean jardun behar.

Transkripzioa

- Eta bakaziñuak eukitten gittuan agostuan, arbixa ereittekora garaixan, ta jakiña, bakaziñuak hartu biharrian jolas egittekora, ittaurren ittekora, bueno, bueno.

12. Soroko lanak

- **Erref:** ONA-046/022
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:50:13. **Bukatu:** 00:52:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Erremolatza hazia, arbia eta artoa nola hazten zuten. Amerikarrek egiten dituzten engainuak artale "luze-luze" horiekin.

Transkripzioa

- Gero baten erein geben erromalatza hazia, hemen Txopeko parian, hor Zabandon edo horreik erromalatxakin, horreik holako gauzakin lana, horreik karrerakuak zien, Basilio eta horreik, eta erromalatza hazia izugarria in xakun, garbantza lakotxe alia, ederra; hurringo urtien erein euein lau aldiz gehixao, baiña tokau zan zakua [...] pixaittia, eskerrak horri, bestela, bueno, bueltaka hari hazia kentzeia izaten zan zailla, oso zailla, erremolatza hazia da gogaikarri parebaia.

- Zer gehixao eukitzen zenduen, zer gehixao ereitten zenduen?

- Arbixak, arbixak be bai, hori be nehikua gogaikarria zan, ereitten zebein, leheningo potoluen bastante, gero batzuk atara, gero lau itxi, lau, gero bi itxi, azkenian bi itxitta.

- Baiña hazittarako.

- Arbixa gero jateko, arbi-ondo, bai, baiña arbi-ondo batzuk itten zien, hau baiño arbi-ondo haundixauak, bueno, ikaragarriak itten zien, ikaragarriak. Eta, ba, horreik danok baikotza bere epokatan: udabarrian artua ereitten zan, San Isidro inguruan, eta gero artuak be, hemen artua itten zan izugarria, onak itten zien artuak, arto klase ona geukan, biribilla, halako artorik sekula ez jakon amari gustaitten artorik kanbixaitterik, oso klase ona. Oin arto luze batzuk ikusten dittut, luze-luziak arta-aliak, eta neri eskaxak pentsaitten xat horreik.

- Nik ez dakit onak edo txarrak dien, baiña hemenguak ez dira. Hemengua borobilla da.

- Bai, hobia da, horreik Ameriketan be holakuak... Klaro, beste gauza bat be pasaitten da: Ameriketan botaten xaue zurittu arte zeori, hautsori, hona bialketan daue eta gero "label" hemen. Horrenbeste engaiñau bihar gaue horreatio, "vamos, vamos".

13. Laborantzan; ongarriak

- **Erref:** ONA-046/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lurra landu eta zaintzeko lanak, gari-soroetan ere bai. Satsa eta karea.

Transkripzioa

- Lehen zer erabiltzen zan lurra ontzeko?
- Hori bolda haundi bat, galanta, eta harekin lur danak zertu, gero atxurtu, bueno, zenbat lan emuten daben lurrak.
- Eta abonuak?
- Eta gero zihar-beharrik eta, nere amak zihar-beharrei eta zer gorrotua, baiña haundixa, eta jakiña, horreik zihar-beharrik eta danak hola garbi eukittia, ba, ez zan izaten erreza. Garittan, berriz, urteten euen kardotxuak eta bestetxuak eta hasten ziñan eta harik eta garixak ebagi arte han zeukan tareia, ha betik garbi ebalteko, garixa garbi, eta behin goguan dakot, itten eben eurixa edo lanbro antza edo, eta hurringo eguzkixa berua, eta garixak batzuk lotu barik, erne soruan dana, gari pillak soruan erne.
- Haik ez daue urun asko emungo ya.
- Gari-urte haundixa zan ta artian nehiko gari euki geben, baiña soruan jausi zan mordua, ta gero ha etaraten ta jentia atxurrakin, in ebenak hak irabazi eben, atxurrakin hobeto kentzen zan, bai, baiña ataraten, ba, ezin zan burutu.
- Eta ze abonu klase ebalten zeuein? Soruetan ze abonu klase, sits edo karia edo ze botaten zotsain?
- Ez dakit ba, bueno, abonua ba sitsa, eta guk Aloñatik be ekarten geben, etxabolak geuken hor ta ardi sitsa, hori ona izaten zan, garbixa eta ona, gari artian ta hola pittin bat botateko, baiña leku batzutan bapebe ezin bota izaten geben bestela haundixegixa hasten zan ta, haundixegixa, [...] haundixegixa.
- Karerik edo?
- Karia be, azkenengua karobi bat akordaitten naiz erreten, argixa bertan ifiñitta ibilli giñan karobixa erreten. Hor goikuak Urzelaiukuak be lagundu oskuein, gero geuk eurari be bai, haik be baeukein karobixa, hor dago goiko zerien, oin dago ganaun eta zerbait jausi ez daixen beteta edo zerbaitzuk botata dago barrura, ezta? Ez daixen han supittuan sartu. Baiña ha karobixa erreten tremendak in leheningo harako zerok [...], batu ezindda, otok ta abarrok eta danak erreten euen, eta gero berriz hiru-lau egunian han hari sartu ta sartu gau ta egun, sorua gertateko usaitten geben guk hori, sorua gertateko, eta gero etxia zuriketako...
- Hau ez da letxadia.
- Hau pintturia da, hau pintturia da, bai, in oskun hemen igeltseruak, hil zan gaiñera bera, ha ze penia itxi nontan Bixente Bizkaino, hori kaleko igeltserua zan. Bueno, harek ze lan in oskun guri! Ta pinttauta be orduantxe ifiñi zan hau pinttauta, eta ittoia be pinttauta handikaldia.
- Ittoia be?
- Lehenaoko ganauen ittoia be dana pinttau eben, ta zorua dana barrixa bota. Ona euen, baiña artian be barrixa bota.
- Ittoientzako karia ez da hoba? Karia ez da hobia ittoian?

- Bai, baiña pinttoriakin in euen, pinttoriakin in euen. Eta betik, hobeto geratu zan hala, lehenago ganauak eukittako lekua.

14. Ardi gutxi eta ganadurik ez jada

- **Erref:** ONA-046/024
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:59:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Orain ganadu gutxiagorekin, ardi-txabola ere elkarte bihurtuta dute. Etxola inguruan fraidea zulora joan zenekoa.

Transkripzioa

- Oin bapebe ganaurik badakotzue?
- Bakarra.
- Etxerako esnia?
- Behi bat dakogu. Ez, ez dogu sekula jaizten. Ez dogu bapebe jaizten, "por libre" hor ibiltten da. Esnia bere txahalak eraten xao, txahala euki ebenian, baiña oin ez dako txahalik eta behixa galanta hor dago, ha ze txuletak euko dittun! Ha ze txuletak!
- Lehenau ganau asko zekazuen?
- Dozena bat inguru.
- A, esan dozu, bai, eta ardixak?
- Ardixak be lehenago larogei edo larogeittik gora, baiña oin berrogei bat billots edo ardi edo hola badagoz. Gehittu itten dia, bi billots itten dittue ta kendu itten dittue baiña atzera be gehittu, baiña ardixak oso gutxi balixo dau saltzeko, oso gutxi.
- Esan dozu lehen Aloñan etxabolia zekazuela.
- Bai, bai, hori lehenago pastoria faten zan hemendik hara eta han jaitzitta ekarten eben.
- Baiña pastoria ze, etxekua edo?
- Bai, etxekua.
- Zure anaia?
- Bai, baiña oin dakogu ba ifiñitta bestela etxabolia, berogarrixakin eta danakin, beheko sua.
- Alaba: Gomistegi onduan.
- Aloña entradan bertan.
- Zer dakotzue, refujixo modura edo, txale edo?
- Alaba: Bai, etxabola, egoteko moduan, soziedade modura edo hola, bai.
- Haundixa da, etxabola luzia da, ta ondo ifiñitta dakoi, bai, ni ez naiz fan aspaldixan, gero gaiñera Oñatiko Gorgomendin mezia emun bihar ebela ta abaria be, zera, beheko zulora jausi zan han, ta nere artian, ba, ez dago hor, horreik leku seguruak.
- Ze abare jausi zan?
- Abaria? Zein zan, obispua edo zein zan?
- Alaba: Ez dakit, ni ez naiz akordaitten, ama, historixa hori.
- Baiña noizko kontua da?
- Alaba: Hutsik euenian, igual? Oin dala 50 urteko kontua.
- Ez, ez, urte gutxi da hori pasau zala.
- Alaba: Eta nora jausi zan, ba?
- Ba jausi zan Gomistegi baiño gorago dauen zulo batera, ta han modu

askotakuak dagoz zuluak, holako gainbehera batera, baiña beste bat dago han, Gomistegikuak baten oillua eta bestian txarria.

- Leze-zulua?
- Ez, potolo haundi bat. Ta hara sartu kotxia, itxuria pasau xakon. Eta hori dana oinndiok ez da urte asko, ez da urte asko, ez.

15. Gaztagintzaren inguruko kontuak

- **Erref:** ONA-047/002
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Zenbat gazta egiten zituen eta beste kontu batzuk.</p>

16. Graziano bertsogilea

- **Erref:** ONA-047/003
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Graziano bertsogilearekin kalera joan zen bateko kontuak. Grazianoren bertso batzuk kantatzen ditu.

17. Urtiagaineko erromeriak

- **Erref:** ONA-047/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak Urtiagainen; fraideen kexak dantza lotuagatik. Urtiagaineko bolalekua eta jatetxea.

18. Nobiotan

- **Erref:** ONA-047/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Bere gizona nola ezagutu zuen klean, eta nola ezkondu ziren.

19. Gerra denborako aisialdia; senarra gerran zaurituta

- **Erref:** ONA-047/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra denboran, mutilak etxetik kanpo eta festa egiteko lagunak ez. Bere gizona gerran nola zaurituta suertatu zen kontatzen du.

20. Sakaponak

- **Erref:** ONA-047/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Umetako jolasak. Sakaponak eta takatakak.

21. Argia eta ura etxean

- **Erref:** ONA-047/011
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehenengo arropa garbitzeko makina. Argia eta ura noiz ipini zituzten. Argia lehenago ura baino.

22. Gaurko ura eta lehenengo iturriak

- **Erref:** ONA-047/012
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gaur egungo ur-horniketa eta lehengo iturriak.

Madina Anduaga, Baxili | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com